

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

## JASOTZEKO FITXA

### ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

|  |   |
|--|---|
| <b>1. Erakundearen izena:</b>  | Mutualia  |
| <b>2. Sektorea:</b>  | Zerbitzua   |
| <b>3. Langile kopurua:</b>   | 593   |
| <b>4. Webgunea:</b>  | <a href="http://www.mutualia.eus">www.mutualia.eus</a>  |
| <b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b><br>(produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...): | <p>Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.ko Mutua, enpresen elkarte pribatu bat da, irabazi-asmorik gabekoa, eta bere helburua da enpresa kideak eta pertsona babestuei zuzendutako zerbitzu sanitarioak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea.</p> <p>Prebentzioaren kultura sustatzen du, bai bezeroen artean, bai gizartean. Horretarako, osasuna, bizi-kalitatea eta bere interesdun taldeen gogobetetzea hobetzea helburu duen kudeaketa aurreratuko eredu bat aplikatzen du, produktu berritzaileen eta pertsona konprometituen eskutik, gizartearekiko erantzukizunez jardunez eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren jasagarritasuna bermatzea bilatuz.</p> <p>Mutualiaren lana ondorengo jarduera hauek dira:</p> <p>a) Gizarte Segurantzako laneko istripu eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko kontingentzien babesean sartzan diren prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntzak kudeatzea, errehabilitazioa barne dela, baita babes-ekintzak eskaintzen dituen kontingentzia berorien inguruko prebentzio-jarduerak ere kudeatzea.</p> <p>b) Kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzea.</p> <p>c) Haurdunaldiko eta edoskitzaro naturaleko arriskuengatiko prestazioak kudeatzea.</p> <p>d) Norberaren konturako langileek jarduera eteteagatik dituzten prestazio ekonomikoak kudeatzea, 32/2010 Legeak, abuztuaren 5ekoak, arautzen duen moduan, bertan xedatzen baita langile autonomoak jarduera utzi ostean babesteko berariazko sistema.</p> <p>e) Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazioaren kudeaketa.</p> |

f) Legez ematen ahal zaizkien Gizarte Segurantzaren baitako gainerako jarduerak.

### Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

**Solaskidearen izen-abizenak:** Jon Irizar Huguet

**Helbide elektronikoa:** [jirizar@mutualia.eus](mailto:jirizar@mutualia.eus)

**Telefonoa:** 944252500 luz.:4623

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

|   |  |
|---|--|
| 1. Praktika onaren titulua:   | IDENTIFIKAZIO EGITASMOA  |
| 2. Praktika onaren azalpena:<br><br>Zer da? Zertan datza?<br><br>Nondik dator?<br><br>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak? | <p>Mutualian kanpo zein barne harremanak euskaraz ere izateko egitasmoa da “identifikazio proiektua”. 2014ko abenduaren 3an Osakidetza eta Mutuak hitzarmena sinatu zuten, Mutuak “e” identifikazio ikurra erabili ahal izateko.</p> <p>Barne harremanetan eragiteko, “erabil nazazu” kanpaina jarri zen abian. Mutuakiko komunikazio plataforman “e” ikurra erabiltzearen garrantzia azaldu zen, eta baita, eskuragarri zein euskarri mota ditugun azaldu ere: mahai gainekoak eta emailtako sinaduretan “e” ikurra jartzea (nola egin argibideak emanez).</p> <p>Kanpo harremanetan erabili diren euskarri nagusiak osasun alorreko langileen lan arropetan “e” ikurra serigrafiatzea eta harreretako mahai gainekoa jartzea izan dira. Osasun alorrean 144 langilek dute beraian lan arropa serigrafiatua. Aldiz, Mutuakiko 18 zentroetatik 17tan ditugu harreran mahai gainekoa jarrita.</p> <p>Hortaz gain, historia klinikoetan hizkuntza eremua txertatu dugu. 2015 urtean ezarri zen datu pertsonalen atalean hizkuntza lehentasunaren erregistroa egitea. Urtero erregistro horren jarraipean egiten da eta erregistroa hobetzeko neurriak hartzen dira: eremua derrigorrezko eremu gisa jartzea, osasun administrazioan lan egiten duten langileekin sentsibilizazio jardunaldiak, eta abar.</p> <p>Etorkizunean, “Euskara mutu ez Mutualian” kanpaina jarriko dugu martxan. Mutuakista diren pertsona eta enpresei zuzenduta egongo da eta bertan identifikazio ikurraren esanahia zein den azalduko diegu, bideo bidez eta baita aldizkari digital zein webgunean ere.</p> |

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Identifikazio euskarri ezberdinak:



Outlook eko emaileko sinadura irudia:

Identifikazio sistema / Sistema de identificación

Irizar, Jon

Para ☒ 50 VI Todo Alava; ☒ 50 BI Todo Bizkaia; ☒ 50 SS Todo Gipuzkoa

Egun on,

### rabil nazazu! kanpaina:

2018. urtean etengabeko hobekuntza prozesuaren oinarriak jarraituz, identifikazio sistemaren euskarri berriak aurkeztu nahi dizkizuegu. Helburu da euskaraz hitz egitea nahiago duten erabiltzaileei eta lankideei euskarazko komunikazioa erraztea. Informazio gehiago Elkargunen duzue.



<https://mutualiaeus.sharepoint.com/sites/EU/berriak-sartu/berriak/Lists/Blog-sarrerak/Post.aspx?ID=80>

Ondo izan

Jon Irizar Hugueta  
Euskara Dinamizatzailea



**Nahi baduzu, nirekin euskaraz!**

Historia Klinikoan datu pertsonalak hartzeko orria, hizkuntza eremua derrigorrez bete behar den eremua da.

KUDEAKETA AURRERATUA  
**EUSKALIT**  
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

CIP

628005



Avisar Datos Incompletos

Información trabajador/a

\* Identificador: DNI [redacted] \* D.N.I. [redacted] N

\* Nombre: [redacted] \* Apellidos: [redacted]

\* Nº S.S. 48 6016457 91 TIS 0

\* F. Nacimiento: [redacted] \* País Nacimiento: 724 ESPAÑA

\* Sexo: Mujer \* Número Hijos: 0

Estado Civil: [redacted] \* Nacionalidad: 724 ESPAÑA

\* Idioma Preferente : Otros Medios Comunicacion

Euskera  Si

Castellano  No

No registrado, alta no presencial

Domicilio

Dirección: [redacted]

Tipo Domicilio: Nacional \* Tipo Vía: 6 Calle [redacted]

\* Sin Número:  \* Número: 5 Bis:  Bloque: [redacted] Escalera: [redacted] Piso: [redacted] Puerta: [redacted]

\* Provincia: 48 BIZKAIA \* Localidad: 907 BILBAO

\* Municipio: 20 BILBAO \* C.P.: [redacted]

Datos de contacto